

## «ZERUTXU» IKASTOLAREN 25. URTEA

Idazlantxo honen abiaburuan, irakurle, azalpen txiki bat zor dizudala eta nago.

Lan hau Markina-Xemeinen sei hilabetero ateratzen den GARAIAN aldizkarian argitaratua da. Tokian tokiko gaia izanik, KARMEL honetan baino han hobeki koka zitekeen behar bada.

Hala ere gure historia, bizi-hariarekin batera, han-hor-hemenka etengabe gauzatzen da. Horregatik, mende laurdeneko hari-mataza eho ondoren, atzerantz pixka bat begiratzuz, hemen gorpuztu den historia edonori ere jakingarri gerta dakioketela uste dut.

Markina-Xemeingo ikastolaren historia duzu hau; ikastola txiki eta xume baten 25 urtetako eskarmentu latza. Baina bide batez edozein ikastolarena ere izan daiteke; batzuen eta besteen artean izan ohi diren nahitaezko ezberdintasun txikiak gorabehera, diktadurapean sorturiko Euskal Herriko edozein ikastolaren historia. Beraz, barka, irakurle, idazlan hau, herri nahiz ikastola konkretu bati gehiegi atxekirik soma badezazu, eta jaso honen bidez helerezi nahi nizukeen mezua.

### **Izpirituaren ondarea**

Mendeetan zehar iraunez geureganaino datorkigun euskal izpirituaren ondarea ahul, ia gaitzak larriki jota dagoela esateak ez dirudi gehiegizkoa denik. Urteetan eta urteetan, lurrak sakonera-

rik ez eta, haitz bitarte latzean sustriak kokatuz ozta-ozta bizi den txara bihurria ematen du.

Orain dela gutxi KARMEL aldizkarian «Zakurrak non mina han mihia» izenburuz euskararen inguruneke zenbait arazo ikutzen nituen. Oraingoan ere, ikastolak hizpidea emanik, ideia berdintsuaren ingurumarira itzultzen naiz.

«Nire aitaren etxea  
defendituko dut.  
Otsoen kontra,  
sikatearen kontra,  
lukurreriaren kontra,  
Justiziaren kontra,  
defenditu egingen dut  
nire aitaren etxea.  
(...)

Ni hilen naiz,  
nire arima galduko da,  
nire askazia galduko da,  
baina nire aitaren etxeak  
iraunen du  
Zutik»

Ikastolak eraikitzeke lehen saioetan, G. Arestik poema aipagarri honetan adierazten digun antzeko giroa nabari da. Galtzear dugun ondarea gorde nahia. Geure izpirituari itsatsia dugun kultura berbiztu nahia. Arbasoengandik datorkigun izaera tinko ezarri arte ez dugula sekula ere etsiko.

### **Lehen saioak**

Gerra aurretik egin ziren lehen saioak. 1918. urtean Oiñatin ospatu zen «Congreso de Estudios Vascos»-en gauzatzen hasi ziren ikastola sortzeko ideiak; bigarren biltzarrea Iruñean izan zen 1920.ean eta hirugarrena Gernikan 1922.ean. Biltzarre hauen ondorioz Lekarozen sortu zen lehenengoetariko euskal eskola; baina auzo ikastolak 1930.az geroztik hasi ziren abiada politean.

Gerokoa jakina da: gerra aurreko beste hainbeste ekintza txaloga-  
rriekin gertatu zenez, gudu anker horrek suntsitu zuen ikastolaren  
amets polit hori ere.

Baina jo dezadan 1960-1970 hamarkadan sortutako oraintsua-  
goko ikastolen harira eta bereziki «Zerutxu» Ikastolaren sorrera eta  
bilakabidea azaltzera.

«Zerutxu» Ikastolaren estreineko ikasturtea 1964-65.ekoa izan  
zen. Karmengo Komentuaren gela batetan eman zitzaion hasiera.

Karmengo artxihoan mekanografiaturik gordetzen diren  
paperen arabera, horretan aitzindaritzat har ditzakegun Justo  
Arrieta herriko alkateak eta Manuel Juaristi (A. Migel Maria) Kar-  
mengo nagusiak lehen harreman eta elkarrizketa batzu izan zituz-  
ten. Zera izan zuten hizketagai: Markinaldea euskara onaren  
ingurunetzat jotzen zela aspaldidanik. Markinako euskarak ospe  
handia zuela Euskal Herri osoan; haatik, Markina euskara galtzeko  
arisku larrian zela une hartan. Ezer egin ezik, euskararenak laster  
egingo zuela herri honetan. Ikastolaren sorrerako kronikatxo  
antzeko paperean albiste hau dator: 1962-63. urtean edo zen, eta  
Justo Arrietak, Ondarroako alkatearekin batera dirudienez, euska-  
razko idaz lehiaketa bat antolatu zuen haurrentzat; orduko egun-  
karietan behin eta berriro iragarri arren, lehiaketa honek porrot  
egin zuen, Markinako haurren artean euskal gramatika arloan  
inork ez zekiela tautik ere...

### **Ate joka**

Gaitzari berandu izan baino lehen aurre egitekotan, ate joka  
hasi ziren. Lehenengo Bera Kruz-en. Beraien ikasleei euskarazko  
klaseak ematea eskatu zitzaien. Bi hilabete edo igaro ondoren,  
ezetza. Ez zuten, hala ere, etsi eta lehenengo ezetza izan eta ia-ia  
bi urtetara berriro ere ate berberera. Pertsonalki bertara joanez,  
azken ahalegintxoak egin nahi dute. Eskolaurreko sail berezi bat  
hala nahi duten gurasoen umeentzat, ikastola erara, ikastetxean  
sortzea dute helburu. Baina bigarrenez ere ezetza.

Eskola estatalei begira jartzen dira orduan, Euskaltzaindiak  
Heziera Ministeritzari egindako eskabidearen arabera, baina hori

Markinan ezinezkotzat jotzen da, hemen aipatzea ere merezi ez duten arrazoi argi-argiengatik.

Ikastola berria sortzea baino beste biderik ez zen. Horretarako abagune ezin hobea agertu zitzaion A. Zeziliori hilondoko omenaldia egiterakoan. Fraide honek 40 bat urte eman zituen Markinako haurren artean apostolutza eginez. Hortaz, alkateak eta Karmengo nagusiak A. Zeziliori egin zekioken goratzarrerik hobere-na haren izeneko ikastola berria sortzea zela uste dute. Udalak



*Lehen promozioa andereino Garbiñerekin S. Jazinton (1964)*

asmoa onartu ondoren, Manuel Juaristi (A. Migel Maria) arduratuko da hori gauzatzeaz eta zer guztiak bideratzeaz. Honek, andereño izateko Mari Loli Aginaga-ren baietza jaso ondoren, Udalak Arretxinagako eskoletan hutsik zuen tokia eskatzen dio. Udalak baietz, baina gauzak hobeki pentsatuz, hain haur txikientzat Arretxinaga bazter egiten zela eta udaletxeko batzar aretoaz baliatzea pentsatzen da. Hala ere udaletxeko aretoan eta ikastolan apaing-

rriak, hormirudiak eta bestelako objektuak hain desberdinak izanik... horri ere ez zeritzan egoki. Beraz, lehenago udal-alondegia izan zen tokia eskatu zuen. Udalak onartu zuen asmoa, tokia egokitze aurrekontuarekin batera (80.000 pta. gutxi gorabehera). Egokitze lanak amaitu orduko hilabete batzuz iragan behar eta ikastolaren lehen ikasturtea Karmengo komentuko gela batetan hasi zen 1964.eko Azaroan, hurrengo urtean, udaletxean atondutako gelara aldatzeko.

Hasi baino lehen, idazki bat zabaldu zen gurasoen artean. Euskararen garrantzia azpimarkatzen da idazki horretan, Europako zenbait unibertsitatetan eta jakintsu askorengan euskarak sortu duen jakinmina eta abegi ona adieraziz. Kontraste nabarmen gisa, ezer egin ezik, Markina epe laburrera erdaldun huts izan daitezkeela salatzen da...

Ikastolaren hasiera iragarten da, handi-handikako arauak eta ordutegia ere zirimarratuz: zazpi urte arteko haurrak hartuko dira ikastolan eta azken urtean ezik, euskara hutsez irakatsiko zaie. Azken urtean, berriz, egunero gaztelaniaz ere bai zertxobait, erdal eskoletara pasatzerakoan lehen egunetako giro arrotza erraz gainditi ahal izateko. Eskola orduak 10etatik 12etara goizez eta 3etatik 5etara arratsaldez. Ordutegi hau aldakorra izan daiteke negutik udara. Bere garaian eta gurasoen gogoia ikusiz, aztertuko da ikastolaren ekonomi arazoari eta administrazioari dagokiona.

Ikastola Euskaltzaindiaren gerizapean eta herriko udalaren babespean ezarriko da, era berean Karmeldarren gidaritza kultural eta erlijiosoa izango dituelarik.

Bigarren urtean, lehendik ere dantzari irakasten eta hurrekin lanean aritutako Garbiñe Arrate sartzen da andereño.

### **Debeku eta oztopoak**

1966. urteko Urriaren 14an, Bizkaiko tokian-tokiko inspektoreak ikusketa egin eta ikastola legez kanpo ari dela adierazten du:

«Como consecuencia de la visita girada el día 13 del corriente mes al establecimiento de enseñanza primaria privada, de forma

ilegal puesto en funcionamiento por Vds. en el local situado en los bajos del Ayuntamiento de Marquina, les comunico que para el ejercicio de la enseñanza primaria en forma privada se requiere la cumplimentación previa de las normas contenidas en la O.M. de 15 de Noviembre de 1945 (B.O. del E. del 13 de Diciembre).

No habiendo Vds. procedido conforme a las prescripciones de dicha O.M., deben proceder a la suspensión inmediata de las actividades docentes en el antes citado establecimiento, llamado SE-RUCHU, sin que puedan las mismas ser reanudadas mientras carezcan de la reglamentaria autorización expedida por la Dirección General de Enseñanza Primaria.

Lo que le comunico para su conocimiento y efectos oportunos.

Debeku honen ondoren, 1966.eko Abenduan ikastola legeztatzeke eskabidea igortzen zaio Madrileko Inspektoreari Markinako Alkate eta Bizkaiko Diputatu zen Justo Arrietak sinaturik.

Bitartean «Zerutxu» Kultura Alkartea sortzeko baimena eskatu eta Madrilen 1966.eko Azaroaren 15eko dataz onartua eta legeztatua izan zen, 1967.eko Urtarrilaren 22an bilerara orokorra egin zen udaletxeko aretoan. Bilerara deitzen den orrian, gaztelaniazko atalean, zera irakur daiteke: «Esta nueva sociedad se crea con el fin primordial, no exclusivo, de proteger cultural, económica y administrativamente la marcha del «Colegio Bilingüe Padre Cecilio - Zerutxu». Bileran honetan lehen zuzendaritza batzordea osotuko zuten 15 kide izendatu behar ziren, hautatuak honako hauek izanik:

*Buru (presidente):* Patxi Arrate

*Buruorde:* Julian Maguregi

*Idazkari:* José Antonio Ansola

*Idazkariorde:* Joakin Maguregi

*Diruzain:* Jon Duralde

*Diruzainorde:* Mari Sol Ibarzabal

*Mahikoak:* Lauren Aretxabaleta  
Felipe Amutxastegi  
Ramón Biteri  
Mari Karmen Juaristi  
Anjel Juaristi  
Zelestino Garzia  
Javier Arrate  
Iñaki Maguregi  
Jazinto Biteri

Onulari (aholkulari): A. Migel Maria (Manuel Juaristi).

Paperetatik atera dezakegunez, alkarte honen ekintzen artean, arestian aipatutako helburu nagusiaz gainera, honako hauek agertzen dira:

- Elkartearen araudia moldatu.
- Hitzaldiak eta euskal kantaldiak antolatu.
- Eguneroko kultura ekintza ezberdinak antolatu:
  - dantza taldea
  - umeen gau eskolak
  - nagusien alfabetatzea
  - soinua
  - txistua
  - bertsolaritza etab.

Ikastolak eta «Zerutxu» Alkarteak sorreratik beren bidean aurrera egin zuten, baiña oztopoz eta debekuz beteriko bidean zehar.

Legeztatzeko eskabidea egin ondoren, 1967.eko Ekainaren 28ko dataz debekua dator berriro ere inspektziotik. 1945.eko legea zegoen indarrean eta oraingoan ere ez omen zen betetzen... (titulu gabeko andereñoak, 8 urte arteko luzapena eskolaurrean, espedientean ez datorren zuzendaritza batzordea izatea).

1967.eko urriaz gero, ikastola legeztatzeko ekinahalean dihardute «Zerutxu»koek. Erakunde ezberdinetara jotzen da laguntza eske: Karmeldarren Ordenako nagusiengana, Euskaltzaindiara, Markinako udalera, Guraso Alkartera, Markinako Lanbide Eskolara, Bera Kruz Ikastetxera. Manuel Salazar Osasun zerbitzuetako buruari eta Karlos Arrizabalaga udal-paratzaileari ere eskatu zitzaizen euren informe teknikoa eta aldeko informe eta sinadura guztiak barne direla, eskabide berria egin zen Lauren Aretxabale-taren izenean. Erantzuna 1968.eko Urtarrilaren 24ean jaso zen. Oraingoan baietza! Espedientea bere hidean jarria izan zela eta ministeritzaren baimen ofiziala etorri arte behin-behineko baimena zuela; haina haurrak herriko eskola estatalean matrikulatu eta azterketak ere han burutu beharko zituztela, emaitzak eskola horrek eskuratuko zizkien kartiletan ezarriz.

### **Ikastola ohizko tokira**

1969.eko Azaroaren 16an ikastola bere ohizko tokia izango zenean kokatu zen, hots, Karmengo komentuan atondutako toki berrian: lau gela, komunak eta jolastokia. Jaialdi polit bat antolatu zen toki berriari estreinaldia emateko.

Ikastolak ia inoiz ere ez zuen izan ibilbide erosorik. Barealdi batzu gorabehera, ia beti handik eta hemendik jartzen zizkioten oztopoak gainditu beharrean. Inspektorea hurbiltzen zen bakoitzean gorriak ikusi behar izaten zituzten andereño eta arduradunek.

«Zerutxu» Dantza Taldeak aipamen berezia merezi duela uste dut. Talde honetan egin izan den lana gure folkloreak alde sinestezinekoa da; benetan lan eskergetza eta oraindik ere egiten ari direna... Jakingarria litzateke zenbateko kopurua ematen duen talde honetatik iragan diren markinarrak eta horren inguruan burutu izan diren kultura ekintzak. Paperetan ez dut aurkitu zehatz-mehatz noiztikoa den ziurtatzeko datarik. Garbiñe Arrate lehen-lehenik, hots, andereño sartu aurretik, haurrei dantzak irakasten aritua zela adierazten da, haina sorreratik bertatik Felipe Amutxastegiren ardurapean izan den «Zerutxu» Dantza Taldea ere ikastolaren bigarren urterako edo, eraturik eta bideraturik zela



dirudi. Oraindik beratu da hortxe tinko dirauena. Ikastolak, orain dela 4 bat urte Bera Kruzekin bat egin zuen. «Bake santua» esango dute, agian, norbaitzuk, baina geure izera, geure kultura, geure txikien euskalduntasuna sendotzearen, abaildu, senperrenak egin eta ideal bikainen alde jo eta ke aritzea pozgarria izan behar. Orduko bizitasuna, dohaineko lanak, ikastolaren inguruan aber-tzale indarrak biltzea, dirua ez dagoen lekutik ere atera beharra... leialtasun eta balio handiko joko polita zenik ezin uka. Guzti hau, garai hartako ekintzaile errime eta saiatuen ohoretan diot. Apurka-apurka, urratsez urrats bagoaz aurrera geure herriaren histori ataltxo bat moldatuz. Bakoitzak berea emanaz zatika-zatika geure biziaz erein ohi dugu bidea. Atzean utzi dugun bizi-hariaren odol eta izerdizko haziaren damurik ez dugu, ordea.

*Luis Baraiazarra*